



**8/2021 TXOSTENA, MARTXOAREN 29KOA, KONTRATAZIO  
PUBLIKOAREN A HOLKU BATZORDEAREN BATZORDE  
IRAUNKORRARENA.**

**XEDEA: AGINDU-PROIEKTUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA ETA  
EKONOMIA ETA OGASUNEKO SAILBURUARENA, HEZKUNTZA SAILEKO  
KONTRATAZIO MAHAIAREN OSAERA EZARTZEN DUENA.**

**I.- AURREKARIAK.**

2021eko martxoaren 10ean, Hezkuntza Sailak Hezkuntzako sailburuaren eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren agindu-proiektuaren gaineko txosten-eskaera egin zuen, Hezkuntza Sailaren kontratazio-mahaiaren osaera ezartzeko.

Eskaeraren espedientea prozedurak elektronikoki izapidetzeko aplikazio informatikoaren bidez izapidetu zen (Tramitagune; erreferentzia: DNCG\_ORD\_1706/21\_07), eta honako agiri hauek jasotzen ditu:

- Agindu-proiektuaren gaineko memoria, Hezkuntza Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendariak sinatua.
- Agindua, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena eta Hezkuntzako sailburuarena, agindu-proiektua egiteko prozedurari hasiera ematea erabakitzen duena.
- Hezkuntza Saileko Aholkularitza Juridikoaren txostena.
- Agindua, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena eta Hezkuntzako sailburuarena, agindu-proiektuari alde aurreko onarpena ematen diona.



## **II.- ESKUMENA.**

Txosten hau egitea nahitaezkoa da, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.a).2 artikuluan xedatutakoaren arabera (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua); izan ere, txosten honek agindu-proposamena jasotzen du, zeinaz behin betiko edo kontratu anitzetarako funtzioak dituen kontratazio-mahaia eratuko baita.

## **III.- KONTRATAZIO-MAHAIEN ARAUBIDE JURIDIKOA.**

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean, SPKL), 326. artikuluan, kontratazio-organoari laguntza emateko kide anitzeko organo gisa arautzen ditu kontratazio-mahaiak (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, zeinaz 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten baita Espainiako ordenamendu juridikora). Aipatu legearen azken xedapenetako lehenarekin bat etorrita, 326. artikulua hori ez da oinarrizko legeria.

Izan ere, 116/2016 Dekretuaren 8. eta 9. artikuluetan jaso da kontratazio-mahaien erregulazioa: 8. artikulua kide anitzeko organo horien osaera arautzen du, bai eta organo horietako kideen izendapena ere; 9. artikulua, berriz, organoaren funtzioen irismena zehazten du.

Esleipen-prozedura irekietan, mugatuetan eta negoziatuetan, 8. artikulua oro har xedatzen duenez, kontratazio-organoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dute publikitatea egiteko, mahai horrek izango baitu eskaintzak balioztatze eskumena. Horrez gain, xedatzen du ezen, lizitazioaren berri iragarki bidez eman beharrik ez duten prozedura negoziatuetan, kontratazio-organoak aukeran izango duela kontratazio-mahaia eratu edo ez. Kontratazio-organoari dagokio mahaia osatuko duten pertsonak izendatzeko eskumena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria izan ezik; kasu horretan, bulego horren titularrak izendatuko du.

Artikulu beraren 2. apartatuan, kontratazio-organoari laguntza emateko organoen osaera-arauak finkatzen dira, eta ezartzen da presidente batek, idazkari eginkizunak gauzatuko dituen pertsona batek eta gutxienez hiru batzordekidek osatuko dituztela kontratazio-mahaiak. Eta, horrez gain, ezartzen da batzordekideen artean honako hauek egon beharko dutela nahitaez: kontratazio-organoari aholkularitza juridikoa emateko betebeharra duen kide bat eta aholkularitza teknikoa emateko betebeharra



duen beste bat, eta kontu-hartzaile bat edo kontratazio-organoaren ekonomia eta aurrekontuak kontrolatzeko funtzioa esleituta duen pertsona bat. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) ondasunak, azpiegitura teknologikoak eta zerbitzuak kontratatzen direnean, IKTen arloan eskumena duen zuzendaritzako pertsona bat izan beharko da kontratazio-mahaian, aipatutako zuzendaritzaren titularrak proposatua eta eskumena duen kontratazio-organoak izendatua.

Nahi izanez gero, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako ordezkari batek ere parte har dezake laguntza-organo horretan, kontratazio-organoak hala eskatuz gero. Kontratazio-organoak izendatuko du ordezkari hori, Ondare eta Kontratazio zuzendariak proposatuta.

Kontratazio-mahaia osatzen duten kideak izendatzeko moduari dagokionez, aipatutako 8. artikuluko 3. apartatuaren arabera, behin betiko izenda daitezke, edo berriaz ere bai, kontratu bakoitzerako esleipena eginez. Era berean, zehazten denez, Kontratazio-mahaiko kideak behin betiko izendatzen badira edo mahaia kontratu anitzetarako funtzioak esleitzen bazaizkio, kontratazioaren alorrean eskumena duen sailaren titularraren eta kasuan kasuko sailaren titularraren edo erakundea atxikita dagoen sailaren titularraren baterako agindu bidez eratuko da kontratazio-mahaia, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Halaber, beste baldintza bat gehitzen du: kontratazio-mahaia nola osatu den eta kideak nor diren adieraziko da kontratuaren administrazio-klausula partikularren agirian, eta osaera hori kasuan kasuko kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, kontratuak egiteko gaitasuna duela eta kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentazioa kalifikatzeko bilera egin baino gutxienez hamar egun lehenago.

#### **IV.- KONTRATAZIO-MAHAIK ERATZEA.**

Eusko Jaurlaritzaren sailen berregituraketak —Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren bidez egin denak— osaera berri bat eman dio sail bakoitzak esleituta duen jardun-eremuari, eta Hezkuntza Saila barne hartu du, aipatu dekretu horren 10. artikuluan adierazten diren funtzioekin eta jardun-eremuekin.

Horregatik, Hezkuntza Saileko Kontratazio Mahaia osaera landu behar zela iritziz da.



## V.- AGINDU-PROIEKTUA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari eskatu zaion txostenean aztergai den agindu-proiektuaren bidez, Hezkuntza Sailaren Kontratazio Mahaiaren osaera iraunkorra ezarri nahi da.

Agindu-proiektuak arau maila eta organo eskudunak errespetatzen ditu, kontratazio-mahaiko kideak behin betiko edo kontratu anitzetarako funtzioak esleituz izendatzeko, hala exijitzen baita 116/2016 Dekretuaren 8.3 artikulua araber.

Agindu-proiektuaren testuak 116/2016 Dekretuaren 8. artikuluan jasotzen den kontratazio-mahaiaren gaineko erregulazioa aipatu dezan, zioen azalpenaren lehen bi paragrafoak honela idaztea proposatzen da:

*«Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8. artikulua lehenengo apartatuak hau xedatzen du: Prozedura irekietan, mugatueta eta prozedura negoziatu publikitate duntan, kontratazeko eskumena kontratazio-batzorde batena denean izan ezik, kontratazio-organok kontratazio-mahai baten laguntza izango dute, eta mahai horren eskumena izango da eskaintzen balorazioa egitea; eta kontratazio-organok kontratazio-mahaia eratu edo ez aukeran izango du, lizitazioaren berri iragarki bidez eman beharrik ez duten prozedura negoziatueta.*

*Bestalde, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8. artikuluko 3. apartatuaren bigarren paragrafoan honako hau azaltzen da: Kontratazio-mahaiko kideak behin betiko izendatzen badira edo mahaiari kontratu anitzetarako eginkizunak esleitzen bazaizkio, kontratazioaren alorrean eskumena duen sailaren titularraren eta kasuan kasuko sailaren titularraren edo erakundea atxikita dagoen sailaren titularraren baterako agindu bidez eratuko da kontratazio-mahaia, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.»*

Ondorioz, agindu-proiektuaren zioen azalpenaren lehen paragrafoa hirugarren paragrafoaren tokian jarriko da.

Agindu-proiektuaren zioen azalpenaren bigarren paragrafoa kentzea proposatzen da, bete egin baitzen 116/2016 Dekretuaren Zazpigarren Xedapen Gehigarriak eskatzen duen mahaiaren egituraren egokitzapena, Hezkuntzako sailburuak eta Ogasun eta Ekonomiako sailburuak emandako agindu banaren bidez, hau da, 2017ko ekainaren 7ko Aginduaren eta 2020ko maiatzaren 22ko Aginduaren bidez, hurrenez hurren; azken agindu horri dagokionez, jasota geratu da agindua izapidetzeko prozeduran ez zela eskaerarik egin Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen nahitaezko txostena izateko.



Agindu-proiektuaren zioen azalpenaren hirugarren paragrafoa honela idaztea proposatzen da, eta laugarren paragrafoaren tokian jarriko da: «*Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak txostena egin ondoren, [...]».*

Agindu-proiektuaren 1. artikuluko b) letraren bigarren apartatuan Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria aipatzen da. Pertsona hori batzordekide «*kontu-hartzailea*» da; batzordekide hori 116/2016 Dekretuaren 8. artikuluen 2. apartatuaren lehen paragrafoaren azken tartekian aipatzen da, eta hori da kontu-hartzaitza kontrolatzeko funtzioaz arduratzen dena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legean araututakoaren arabera. Hori dela eta, agindu-proiektuaren aipatu b) letran azken tartekia kentzea proposatzen da: «*[...] eta kontratazio-organoaren ekonomia- eta aurrekontu-kontrolaren funtzioa duena*».

Agindu-proiektuaren 1. artikuluen b) letraren hirugarren atala honela idaztea proposatzen da, indarreko araudira egokitu dadin: «*Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) arloko zuzendaritza eskudunaren ordezkari bat, zuzendaritza horretako titularrak proposatua eta kontratazio-organoak izendatua, dekretu honetan aurreikusitako kasuetan: 36/2020 Dekretua, martxoaren 10ekoa, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak kudeatzeko eredu».*

Agindu-proiektuaren 1. artikuluen c) letran, lehen tartekia honela idaztea proposatzen da: «*c) Aholkularitza Juridikoko idazkaria-batzordekidea: zuzenbidean lizentziatua edo graduduna den teknikari bat [...]*».

Azaldutakoagatik, **ALDEKO TXOSTENA** ematen diogu Hezkuntza Saileko Kontratazio Mahaiaren osaera ezartzen duen Hezkuntzako sailburuaren eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren agindu-proiektuari, betiere haren edukia txosten honetako jarraibide eta gomendioetara egokitzen bada.